

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Iraultza gurea da Aiora Landa Arroyo

Ni Nyla Asaju naiz. 24 urteko emakumea, Somaliako herri txiki batean bizi dena. Txikitatik amak kontatu izan dit nire izenaren jatorria. Asaju abizenak, gizonezkoen menpekotasunari egiten dio erreferentzia, ordea Nyla izenak, irabazle esan nahi du. Kontraesanak ezta?

Amak betidanik esan dit oso emakume azkarra eta burugogorra naizela, eta zerbait lortu nahi badut, edozer gauza egiten dudala hala izateko. Horregatik, erabaki zuen Nyla jartzea, nire abizenaren esanahiari aurre egiteko eta emakume independente bihurtzeko. Guztira zazpi anai-arreba gara, ordea, ni naiz emakume bakarra. Amarekin eta aitonarekin bizi gara. Lau urte pasa dira aita gudan galdu genuenetik, eta aitona, gudatik ihes egitea lortu zuena, gaixorik dugu.

2013ko udaberria zen. Uzta biltzen genbiltzan, beti egiten dugun bezala. Sekulan lortu ez genuena lortu genuen. Lurra, denboraldi hartan inoiz baino emankorragoa. Bildutako uztaren zatirik handiena, herriko plazako azokan saltzen genuen, eta beste zatia, guretzako zen, noski. 18 urte betetzear nengoen, eta Muqdishoko Unibertsitatera joatea pentsatuta nuen magisteritza ikasteko. Hilabete horretan lortu genuen diruarekin aski zen postu hori ordaintzeko, kostata noski. Uda osoa pasa nuen lanean; agureei arropak garbitzen nizkien 4 kilometrorra zegoen erreka batean, orduan irabazi nuen nire lehenbiziko soldata. Oso harro nengoen, esfortzuarekin lortu bainuen eta etorkizuneko bizitzarako nire buruari eskertuko niolako ahalegin hori.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Iraila iritsi zen, eta unibertsitateko lehen eguna geroz eta hurbilago zegoen. Urduri eta beldurturik sentitzen nintzen. Nire bizimodua guztiz aldatzera zihoan, eta beldur nintzen zetorkidanari aurre egiteko gai izango ez nintzen. Beste aldetik, emozio eta sentimendu berri asko ageri ziren, emakume independente bihurtzera nindoan, eta bizitzako egoera berriak nire kabuz bizi behar nituen. Ilusioa eta jakin-mina ere presente zeuden, eta mundu berri hori ezagutzeko irrikan nengoen.

Ordua zen. “Nyla, lasaitu zaitez, guztia primeran joango da eta. Jende berria ezagutuko duzu, eta betidanik amestutakoa egia bihurtzear zaude. Lasai.” - errepikatzen nion nire buruari behin eta berriz, eta unibertsitateko atea irekitzen nuen heinean, emozio horiek guztiak areagotu ziren bihotz-taupadak arinduz. Sartu bezain pronto, gizon batek aretora eraman ninduen. Ikasle guztiak biltzean gure izenak esango zituztela aipatu zidan, eta geletara eramango gintuztela gure urte osoan zehar izango ziren gelakideak eta irakasleak ezagutzeko.

Ez ziren 10 minutu pasa, gure izenak esaten hasi zirenean, eta harritu nintzen, espero baino jende gutxiago ginelako bertan. Urduritasuna? Bai, inoiz baino urduriago nengoen. Izenen artean, ezagun egiten zitzaidan bat entzun nuen. Neska horren izena, Ashia Jelani zen. Mihiaren puntan nuen, baina aurpegia ikusi behar nion nor zen jakiteko. Orduan, eserlekutik altxatu eta bai, ezagutzen nuen, noski ezagutzen nuela! Herrian bizi zen neska bat zen, baina 10 urterekin, bere osabarekin bizitzera eraman zuten. Ama, bera izan, eta 5 egun beranduago hil zen egoera oso txarretan erditu zelako, apenas baliabiderik gabe, eta aitarekin gelditu zen, baina gaixo zegoen ordurako, eta hiltzorian zegoenean, osabarekin eraman behar izan zuten. Gurasoak oso gazteak ziren, eta bera izan zen haien lehen eta alaba bakarra.

-Nyla Asaju, 4A. -esan zuen emakume batek.

Urduritasuna hotzikara bihurtu zen. Altxatu eta 4A taldean zeuden beste guztiekin elkartu nintzen. Izen guztiak esan zituztenean, emakume berak esan zuen:

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

-Orain, zuekin dagoen irakasleak ikasgeletara eramango zaituztete elkar ezagut dezazuen. Ongi etorriak. Ikasgeletarako bidean, konturatu nintzen, aurretik aipatutako neska, Ashia Jelani, nire taldean zegoela, eta izugarri poztu ninduen horrek. Hurbildu nintzaion.

-Kaixo! Ni Nyla Asaju naiz. Ez dut uste nitaz oroituko zarenik, baina ezagutzen dugu elkar. Wanlaweyn-koa zara ezta?

-Bai! Nola dakizu? -erantzun zuen berak harriturik.

-Txikitan gurekin jolasten zinen herrian, baina osabarekin joan zinen, eta ez zintugun berriz ikusi...

-Bai... Aita hilzorian nuen, eta hona ekarri ninduten... -ia negarrez.

Isiltasuna zen nagusi, eta momentu hori hausteko moduan hurrengo esan nion:

-Lasai, nik ere galdu nuen aita txikia nintzenean. Baina bizitzak jartzen dizkigun oztopoak gainditu behar ditugu noizbait, eta egunen batean indartsuago sentituko gara.

-Mila esker... Askok pozten nau ezaguna den norbait hemen ikusteak. -esan zuen gaiaz aldatu nahian- Oso urduri nengoen eta... lasaitu egin nauzu!

Konfiantza eta segurtasuna transmititu zidan. Lagun onak izango ginela banekien.

Eguna azkar pasatu zitzaidan eta Ashia etxeraino joaten lagundu nuen. Urduri zegoen, beldurturik. Etxeko atarian egon zen burumakur segundo batzuetan, eta ondoren, eskerrak eman zizkidan atea irekitzen zuen bitartean.

Autobus geltokirako bidean, burumakur gelditutako une horretako adierazpena etortzen zitzaidan burura behin eta berriz, laguntza behar zuenaren aurpegia zuen, baina ez nuen konfiantza nahikorik oraindik zer gertatzen zitzaion galdetzeko. Nire kontuetan jarraitu nuen, bera lagundu ezinik.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Bigarren eguna. Goizeko seietan esnatu eta t'erdietarako autobusean nengoen. Herritik unibertsitatera, bi orduko bidaia nuen. Egunero lau ordu pasatzen nituen autobusean, baina ez zegoen dirurik ez gidatzeko karneta ateratzeko edo kotxe bat erosteko, ezta hiriburuan pisu bat alokatzeko ere. 3000 txelin inguru ordaindu behar nituen soilik, oso gutxi zen.

Eguna oso azkar pasatu zitzaidan, gaitegiarekin hasi ginen eta benetan oso oso interesgarria egin zitzaidan. Jendea ezagutzen hasi nintzen, nahiz eta soilik 15 ikasle izan. Aurreko egunean bezala klaseak amaitzerakoan, Ashia lagundu nuen etxera joaten eta segituan autobusa hartu nuen herrirako bidean.

Hilabete batzuk pasa ziren, dena primeran zihoan. Nire inteligentzia inoiz baino freskoagoa sentitzen nuen, eta oso harro nengoen. Eskerrak ematen nizkion amari egunero izugarritzko aukera emateagatik. Nire bizitzako aukera. Nire bizitzako ametsa.

Egun horretan, beti bezala, klasera iritsi eta nire eserlekuan eseri nintzen. Ashia nire ondoan jartzen zen beti, baina egun horretan ez zen agertu. Arraroa egin zitzaidan, baina gaixorik egongo zela pentsatu nuen. Ez nion garrantzi gehiegirik eman.

Kezkatzen hasi nintzen bosgarren egunean oraindik agertu ez zenean. Bere atarira joan nintzen, eta txirrina jo nuen. Ahots grabea zuen gizonezko batek erantzun zuen, osaba izango zen. Haserre zirudien, eta doinua aldatu zuen lagunaz galdetzean. Urduri esan zidan gaixorik zegoela baina bihar klasera joango zela. Hitz hauek esan eta eseki zuen. Oso gizon harroputza iruditu zitzaidan, eta nik uste, galdera gehiagorik ez egiteko jokatu zuela horrela.

Hurrengo egunean, klasera sartu nintzen Ashia ikusteko sekulako gogoekin. Arraro zegoen. Ez zen betikoa. Berehala nabari nuen zerbait gertatzen zela, eta aurreko eguneko etorri zitzaidan burura. Gerturatu nintzaion, eta besarkatu nuen. Banekien zerbait ez zihoala ondo, baina ez nuen presiopean jarri nahi, berak askatu behar zuen ahal eta nahi zuenean. Baina orduan negarrez hasi zen eta kalera atera ginen irakasleari baimena eskatuz.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

-Begira Nyla, ni ez naiz uste duzuna. Ni ez naiz zoriontsu. Gurasorik gabe hezi naiz. Osabarekin joan nintzenetik, egunero egiten dut negar, egunero sufritzen dut. Ez dut inorekin sekulan hitz egin nire sentimenduei buruz, baina konfiantza handia ematen didazu eta merezi duzu jakitea zer gertatzen den etxean. Osabak jo eta bortxatu egiten nau. Ez dut min fisikorik sentitzen jada, 11 urteetatik daramadalako horrela. Sentitzen dudan min bakarra barnekoa da. Zikina egongo banintz bezala denbora osoan. Bortxatzen nauen bakoitzean nazkagarria sentitzen naiz eta agian bost alditan dutxatzen naiz. Benetan ezin dudala gehiago...

Harrituta gelditu nintzen. Oso ohikoak ziren halakoak gure herrialdean, baina nahiz eta hain barneratua egon, harrigarria izaten jarraitzen zuen. Malkoek sufrimendua adierazten zuten. Dardarak, beldurra. "Zer da emakumeok egin duguna halakoak pairatu behar izateko?" pentsatu nuen. "Arrunta ez den egoera bat hainbestetan ikusi eta sentitu dugu, normala bezala ikusten dugula."

Inor besarkatu dudan bezala besarkatu nuen. Isilune hori lasaitasun bihurtuz, ekaitza joan eta barea etorri izan balitz bezala. Horrela egon ginen minutu batzuetan. Ordu osoa hizketan eman genuen. Berak behar zuen, eta ni prest nengoen behar zuenerako nire laguntza eskaintzeko. Asko eskertu nuen nirekin horrela ireki izana, hurbiltasuna transmititu zidan, konfiantza, segurtasuna.

Osabaren etxean pasatu zituen hurrengo 3 hilabeteak. Oso latzak egin zitzaizkion, baina ni hor nengoen, bera entzuteko prest. Kurtsoa amaitu zenean, etxetik ihes egin zuen, eta nirekin etorri zen herrira. Bere haurtzaroa igaro zuen herrira. Hainbat leku eta eremu ikustean, oroitzapen asko etorri zitzaizkion burura, eta hunkiturik, besarkatu ninduen. Besarkada horrek emozio asko zituen, zoriontasuna, eskerra, poza, itxaropena, etorkizuna, eta garrantzitsuena, lasaitasuna. Gurekin etorri zen bizitzera eta etxeko guztiok beso zabalik hartu genuen.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Uda osoan zehar egon ginen leku batetik bestera lanean, gure dirua lortuz. Pentsatu genuen, diru dezente lortuz gero, hiriburuan pisutxo txiki bat alokatu genezakeela egunero autobusa hartzeko beharrik ez izateko. Uda amaitzerakoan, dirua zenbatu, eta ziztu bizian autobusa hartu eta hiriburura joan ginen alokairuzko pisu baten bila. Hiru etxebizitza ikusi genituen, eta eskerrak azkenekoa gure aurrekontuan sartzen zela, itxaropena galtzen hasiak ginen eta. Emakumearekin hitz egin genuen, eta dirua eman, paperak bete eta guztia sinatzean, eskuak estutu genituen eta eskerrak eman genizkion.

Hura bai poza barnean genuena! Nork esango zuen gure ametsak egia bihurtuko zirela eta zoriontsu izango ginela? Ashiari begiratu eta negarrez zegoela ikusi nuen. Oraingoan malkoek zoriontasuna adierazten zuten, itxaropena, lasaitasuna. Ezin zuen sinetsi sufritutako horren guztiaren ondoren, hainbeste espero zuena lortzea. Benetan, sekulan sentitu dudan emoziorik politena izan zela, nire laguna negarrez, azken finean gatibu mantentzen zuen kartzelatik askatzen zelako. Gure unea zen. Bizitza gurea zen.

Horrela pasa genituen unibertsitatean gelditzen zitzaizkigun 3 urteak. Izugarriak izan ziren. Gure arteko harremana geroz eta estuagoa zen eta haren aurpegiak poza irudikatzean, nirean islatu egiten zen, ni zoriontsu bihurtzen. Unibertsitatea azkarregi pasatu zitzaigun, eta kurtsoko nota onenekin graduatzea lortu genuen.

-Eta orain zer? -galdetu zidan irribarrez.

Eta orain zer, esan zidan. Orduan gure ametsak bete genituen, lortu nahi genituen gauzak lortuta. 2018an betidanik pentsatua genuena egin genuen. Sexualitateari eta feminismoari buruzko eskola bat sortu genuen herrian. Beharrezkoa iruditzen zitzaigun zetozen belaunaldiak hezkuntza duin batean hezitzea, eta hala egin genuen. Bertan, gai ugaritako hitzaldiak ematen genituen, prebentzioak, bortxaketak, genero rola, masturbazioa, mutilazioa, feminismoa eta beste gai asko jorratzen genituen. Lortu genuen herria egunerokoan gertatzen ziren gauzez kontzientziaztea eta ezagutzen ez genituen arazo, ezberdintasun eta aukerak ezagutaraztea.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Bi urte pasa dira jada eskola eraiki genuenetik, eta inoiz baino harroago sentitzen gara geure buruez, emakume independente, indartsu eta borrokalariak garelako, eta eskubideak ez dizkigutelako sekulan kenduko. Iraultza gurea da, jarrai dezagun bidea eraikitzen.